

EAEko ESQUALDEETAKO ETORKINAK

Panoramika honetan, EAEko etorkinen eskualdekako banaketaz arituko gara, eta, horretarako, 2006ko urtarrilaren 1eko erroldaren behin betiko datuetan oinarrituko gara. Gai horri buruz, 2. panoramikan ere aritu ginen, 2003ko datuekin, eta horrek joerak jarraitu duten edo aldatu egin diren aztertzeko bidea ematen digu. Eskualde bakoitzeko etorkinen kokapen eta finkatzeetan, joerak jarraitu egin dute nagusiki.

Etorkinen eskualdekako banaketari buruz hitz egiten hasi baino lehen, aipatu beharra dago 2006ko urtarrilaren 1eko erroldaren behin betiko datuen arabera EAEn 85.542 etorkin zeudela, EINEk 2006ko uztailean bildutakoa baino 2.000 gehiago. Ikuspegik 11. panoramikan aztertu zuen hori.

Biztanleria osoaren eta etorkinen lurralde-banaketan jarriko dugu arreta. Honako hauek dira datuak, hurrenez hurren: Bizkaian, EAEko biztanleria osoaren %53,5 bizi da, eta etorkinen %50,7. Araban, biztanleria osoaren %14,2 du, eta etorkinen %19,7. Gipuzkoan, biztanleria osoaren %32,5 dago, eta etorkinen %29,7 -1. taula-. Datu horien arabera, Arabak EAEko biztanleria osoan duen ehunekoa baino handiagoa dute hango etorkinek, 5,6 puntu handiagoa baita. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, alderantziz gertatzen da eta EAEko


1. taula. Biztanleria osoaren eta etorkinen eskualdekako banaketa. 2006

	Biztanleria Osoa	Biztanleria Osoaren %	Etorkinak	Etorkinen %
Kantauri Arabarra	33.398	1,6	810	0,9
Gorbeialdea	7.791	0,4	326	0,4
Arabako Lautada	241.496	11,3	14.768	17,3
Arabako Mendialdea	3.152	0,1	160	0,2
Arabako Errioxa	10.826	0,5	613	0,7
Arabako Ibarrek	5.262	0,2	180	0,2
Araba Guztira	301.925	14,2	16.857	19,7
Donostialdea	319.563	15,0	12.333	14,4
Goierrri	64.902	3,0	2.260	2,6
Tolosa	45.897	2,2	1.217	1,4
Urola Kosta	69.430	3,3	2.323	2,7
Deba Garaia	61.654	2,9	1.647	1,9
Bidasoa Behea	76.334	3,6	3.881	4,5
Deba Behea	54.115	2,5	1.629	1,9
Gipuzkoa Guztira	691.895	32,4	25.290	29,6
Arratia-Nerbioi	22.205	1,0	733	0,9
Durangaldea	93.581	4,4	2.939	3,4
Enkarterri	30.342	1,4	865	1,0
Gernika-Bermeo	45.111	2,1	1.680	2,0
Bilbo Handia	872.678	40,9	34.104	39,9
Markina-Ondarroa	26.178	1,2	1.167	1,4
Plentzia-Mungia	49.768	2,3	1.907	2,2
Bizkaia Guztira	1.139.863	53,4	43.395	50,7
Guztira	2.133.683	100	85.542	100

Iturria: EInko datuak.

1. grafikoa

Etorkinen eta bertakoek banaketa EAEko eskualde nagusietan (%).




Iturria: EInko datuak.

biztanleria osoan duen ehunekoa baino txikiagoa da hango etorkinen ehunekoa, 2,9 eta 2,7 puntu txikiago, hurrenez hurren.

Eskualdeei erreparatuz gero, hiriburuen eskualdeek etorkinen kontzentrazio handia dute, hau da, Bilbo Handiak, Donostialdeak eta Arabako Lautadak; aurreko urteei dagokienez, joera bera dagoela ikusten da. Etorkin kopurua mantendu eta apur bat igo da azken urte hauetan: EAEko erroldetan, biztanleria osoaren %67,2 bizi da eskualde horietan dira, eta etorkinen %71,5. Datuak eskualdez

2. grafikoa

Etorkinen finkatzea eskualdeburuetan. Bilakaera 1999-2006 (%)



Iturria: EInko datuak.

rik iristen da etorkinen kopurua %2ra, eta beste zazpitan, gehienez ere, %1era. Ikus 3. grafikoa.


Eskualdez eskualde etorkinen kopuruari erreparatuz gero (2. grafikoa), hogeitik, seik bakarrik gainditzen dute EAEko batez bestekoa: %4. Horietako lau (Arabako Lautada, Arabako Errioxa, Gorbeialdea eta Arabako Mendialdea) Araban daude, bat (Bidasoa Behea) Gipuzkoan, eta beste bat (Markina-Ondarroa) Bizkaian. Arabako Lautadak Vitoria-Gasteiz buru, du EAEko etorkin ehunekorik handiena: %6,1. Atzetik Arabako Errioxa dator: %5,7.

Beste talde batean, Behe Bidasoa eta Markina-Ondarroa daude: %5,1 eta %4,5 dute, hurrenez hurren. Lehen eskualdea biztanle asko izateagatik ere garrantzitsua da; bigarrena, berriz, ez. Behe Bidasoan, faktore ekonomiko eta bestelakoez gain, kokapen geografikoa ere azpimarratu beharra dago, eskualdea mugan baitago. Markina-Ondarroaren kasuan, arrantzak oraindik duen garrantziak azaltzen du indizea hain altua izatea.

Azkenik, azpimarratu beharra dago Arabako zenbait eskualde EAEko etorkinen ehuneko batez bestekotik gora daudela: Arabako Errioxa (5,7), Gorbeialdea (%4,2) eta Arabako Mendialdea (%5,1). Hiru kasu horietan, ehunekoa EAEko batez bestekoa baino handiagoa da, baina, biztanleriari dagokionez, alderantziz gertatzen da, EAEn biztanle gutxien dituzten lau eskualdeen artean daude. Datu horiek, beraz, erlatibizatu egin behar dira; izan ere, biztanle gutxi dituzten eskualdeak izanik, etorkin kopuru txikiak ere etorkinen ehunekoa nabarmen igo dezake.

Eskualde bakoitzean dauden etorkinen jatorrizko kontinenteei erreparatuz gero, behin baino gehiagotan aipatu bezala, erdiak amerikarrak dira, %30 europarrak, %17 afrikarrak eta %5 asiarrak. Era berean, lurralde historiko bakoitzean, xehetasun jakin batzuk daude: Gipuzkoan, etorkin gehienak europarrak dira (%36); Araban, afrikarrak (%28), eta Bizkaian, latinoamerikarrak (%55). Asiarren kopuru

Etorkinen ehunekoak EAEko eskualdeetan. 2006ko errolda.



Iturria: EINKo datuak.

bera dago hiru lurraldeetan (%5) eta ia ez dago Ozeaniarrik edo aberriarrik.

Banaketa hori, oro har, mantendu egiten da lurralde guztietako eskualdeetan, baina, era berean, eskualde bakoitza ezaugarritzen duten zenbait berezitasun ikus daitezke, 4. grafikoa. Hala, Bilbo Handian latinoamerikarren ehunekoa batez bestekotik gorakoa da (%59), eta baita Plentzia-Mungian ere (%59). Gipuzkoako eskualdeetan edo Araban biztanle gutxien dutenetan, berriz, ehuneko hori askoz ere txikiagoa da. Halaber, interesgarria da ikustea Markina-Ondarroan eta Arabako Lautadan afrikar asko daudela, %37 eta %27, hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da, orobat, Deba Garaiko asiarren

3. taula. EAEko eskualdeetako etorkinen antolaketa jatorri nagusien arabera.

	Kolonia	Ekuador	Maroko	Portugal	Errumania	Bolivia	Brasil	Argentina	Txina	Algeria	Frantzia	Peru	Kuba	Erresuma Batua	Venezuela	Gainerakoak	Guztira
Guztira	11.086	7.740	7.582	6.265	6.265	6.016	3.790	2.973	2.530	2.315	1.998	1.570	1.564	1.502	1.459	20.887	85.542
%	13,0	9,0	8,9	7,3	7,3	7,0	4,4	3,5	3,0	2,7	2,3	1,8	1,8	1,8	1,7	24,4	100
Kantauri Arabarra	4,6	6,7	13,0	7,0	4,3	1,0	2,6	3,3	2,3	19,3	1,5	8,5	2,6	1,6	1,7	20,0	100
Gorbeialdea	4,0	9,8	8,6	18,4	13,2	0,9	1,2	8,0	0,0	5,5	0,9	1,2	1,2	3,7	0,9	22,4	100
Arabako Lautada	15,1	7,3	14,0	7,2	4,4	1,9	5,1	2,4	3,3	7,4	1,4	1,5	1,6	1,2	1,4	24,9	100
Arabako Mendialdea	3,1	12,5	21,9	11,3	13,1	1,3	1,9	12,5	0,0	4,4	0,6	0,0	0,0	2,5	1,3	13,8	100
Arabako Errioxa	10,8	0,7	15,0	32,8	14,5	2,0	4,4	0,7	0,0	2,0	0,8	2,1	2,1	0,2	0,3	11,7	100
Arabako Ibarrek	23,3	2,2	0,6	37,8	2,2	3,3	0,6	0,6	0,0	0,0	2,8	1,7	1,7	2,2	1,1	20,0	100
Donostialdea	8,6	13,7	5,3	11,6	3,7	2,0	3,1	5,5	1,9	1,5	4,1	2,0	2,5	3,4	1,7	29,4	100
Goierri	2,3	10,5	14,2	14,3	19,8	1,0	1,7	5,7	1,0	1,6	1,1	0,5	3,2	1,3	1,6	20,1	100
Tolosa	5,4	10,8	13,6	16,0	3,0	0,6	3,7	4,9	0,8	2,2	2,4	1,5	3,0	1,1	1,8	29,2	100
Urola Kosta	5,4	6,3	15,5	5,8	3,1	1,9	3,6	8,6	0,8	3,8	2,8	0,6	2,0	2,5	1,7	35,4	100
Deba Garaia	10,4	7,5	8,3	16,9	1,6	7,3	2,4	5,5	1,6	0,2	1,2	0,8	3,0	1,6	1,0	30,7	100
Bidasoa Behea	9,6	7,8	6,8	10,6	6,4	1,0	5,3	3,3	2,4	2,3	11,6	4,7	1,4	1,6	0,7	24,7	100
Deba Behea	8,7	10,7	23,1	9,0	2,1	7,1	7,2	5,1	0,9	0,7	1,2	0,9	2,9	1,0	2,5	16,9	100
Arratia-Nerbioi	3,8	19,5	8,9	3,3	20,2	15,4	2,2	1,6	0,4	4,4	1,0	0,4	2,7	1,2	2,9	12,1	100
Durungaldea	7,3	5,2	14,9	10,6	16,9	6,6	5,3	2,3	2,1	1,3	0,9	0,7	1,9	1,1	1,2	21,6	100
Enkarterri	10,4	7,2	8,4	18,6	29,6	3,1	6,0	1,6	0,1	0,6	0,2	0,8	0,9	1,2	0,7	10,5	100
Gernika-Bermeo	5,9	6,5	2,6	3,3	35,0	9,3	3,2	3,8	1,8	2,6	0,7	1,5	1,1	1,3	1,4	20,1	100
Bilbo Handia	17,3	9,2	6,2	3,1	7,1	12,9	4,7	2,7	4,3	1,4	1,6	1,9	1,5	1,4	2,0	22,6	100
Markina-Ondarroa	5,0	4,8	9,2	13,6	9,7	1,5	0,5	0,9	0,5	0,5	1,5	2,9	1,3	0,7	1,3	46,2	100
Plentzia-Mungia	16,3	5,1	6,6	5,5	3,4	9,4	8,4	4,8	2,3	0,3	2,5	0,6	1,9	5,6	3,3	24,0	100


Iturria: EINKo datuak.

kasu deigarria eta beste hainbat kasu. Azken horiek inmigrazio-sareekin eta beste jarduerak jakin batzuekin dute zerikusia.

Kontinenteen arabera datu horiek azaltzen dute, hein batean, emakumezko etorkin kopurua oso handia egotea, jakina baita etorkin latinoamerikarren gehiengo emakumeak direla. EAEn finkatutako etorkin gehienak gizonezkoak dira (%50,85); emakumezkoen igoera, berriz, EAEko hogeitauko eskualdeetatik, hirutan nabari daiteke, eta bitan oso nabarmen, Bilbo Handian eta Donostialdean (bietan %48). Hirugarrena Plentzia-Mungia da; lehen aipatu bezala, hango etorkin gehienak latinoamerikarrak dira, eta EAEn emakume kopuru gehiena hartzen duen eskualdea da (%56). Beste herrialde gehienetan, bi sexuen arteko oreka edo gizonezkoen gailentasun txikia dugu, horrelaxe ikusi dugu beste dokumentu batzuetan ere. Markina-Ondarroa da salbuespena; hor emakumezkoen tasa txikia da, %34; baina, hori ulertzeko, kontuan hartu behar da afrikar eta europar asko daudela eskualde horretan, %37 eta %31, hurrenez hurren. Era berean, EAEn amerikar etorkinen ehuneko txikiena duen eskualdea da, %26.

EAEn, etorkin gehienak kolonbiarrak, ekuadortarrak, portugaldarrak eta marokoarrak dira, eta gauza bera gertatzen da eskualde gehienetan. Horrez gain, marokoarrak edo portugaldarrak dira EAEn denbora gehien daramaten etorkinak, baina, orain, beste batzuk ere etortzen hasi dira, errumaniarrak eta boliviarrak.

2. mapa
Etorkin kopurua EAEko eskualdeetan. 2006ko errolda



Iturria: EInko datuak.

Dena den, eredu horren inguruan zenbait zehetasun eman daitezke. Lehenbizi, azpimarratu beharra dago eskualdeburuetan etorkin gehienak latinoamerikarrak direla: Donostialdean ekuadortarrak, Bilbo Handian eta Arabako Lautadan kolonbiarrak. Etorkin gehiengo eskualdeburuetan kokatzen denez, hango joerak erabakitzen dute EAEko etorkin nazionalitate nagusiak zein diren.

3. mapa

Etorkinen jatorri nagusia EAEko eskualdeetan. 2006ko errolda




Iturria: EInko datuak.

Bizkaiko eta Gipuzkoa barneko eskualde batzuetan (Goierri, Arratia-Nerbioi, Durangaldea edo Gernika-Bermeo), errumaniarrak dira etorkin gehienak. Gernika-Bermeon, adibidez, eskualdeko etorkin %35 errumaniarra da.

Era berean, nekazaritza nagusi den eskualdeetan (Arabako Errioxa, Gorbeialdea) portugaldarrak edo magrebtarrak gailentzen dira (Arabako Mendialdean marokoarrak, eta eskualde Kantauri Arabarrean aljeriarrak).

Bi eskualde eredu nagusitik kanpo daude, eta horko etorkinak ez datoz EAEn gailentzen direnekin bat. Bidasoa Behean, etorkin gehienak frantsesak dira (%11,6), eta, ondoren, portugaldarrak (%10,6). Markina-Ondarroa eskualdean, berriz, senegaldarrak dira nagusi.



ikuspegi
Mondragoan, Euzko Herria
Dimitzen duen erakundeak

EAeko inmigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:
 - **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi maila-gua eskeintzen ditu.
 - **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:
 Tlf.: 94 601 82 75
 Fax: 94 402 35 40
 e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzakezu:
 Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia